

## GUZTIZ MAITAGARRIA DA ONDASUNEZ BETEA DAGOEN JESUS.



Mundu guzian banaturik arkitzen den maitagarritasunak ez zu zer ikusi Jesus-ek duenarekin. Eziñ dagoke iñor, San Agustiñek dionez, zerbait maitatu gabe; baña ez dabill bide-batez guzien maitatzea. Batak maitatuko du gauza bat, artan arkitzen duen edertasunagatik; besteak zeren den umore on, edo kondizio leunezkoa: geienak maitatzen dute, emalle den aberatsa; norknai onesten du bera bezelakoa; norknai gauza guziak aren gogora, ta ongi egiten dituen. Norbaitek au ukatu naiagatik, eziñ uka dezake, ederra den, ondasunez beterik dagoen, guziak ongi egiten ari den eta gañerako partida onez betea dagoen bat, norknai maitatzekoa dela. Eta ¿nork uka dezake, guk dakizkigun partida on, ta asko geiagorekin arkitzen dela gure JESUS?

Edertasunik andienak, Jesus-en edertasunaren aldean, lore igartua dirudi, dio Profeta edo Igarleak. Illunbea, ta beltztasuna eguzkiari dariola deritzat, dio Santa Teresak, beiñ Jesusen edertasuna ikusi nuenetik. Ez da lurrean edertasun osoa duen gauzarik; alde batetik ezpada bestetik, itsusiak dira diranak edo guziak. Edertasun-utsa duena, ta alde edo saiets guzietatik maitagarria, Jesus da bakarrik. Jesus arkitzen da Naturelezaren edertasun, Graziaren doai, zeruko ondasun ta Jainkoaren izate edo perfekzio guziekin. Ezta zeruan atsegiñ-utsez arritu, ta lilluratu edo amorez urtua gelditu gabe, Jesusi begira dezokeanik. Lurrekoak gera, artaz oroitu-ere-gabe bizi geranak.

Bere eskuan daduzka Jesus-ek Naturelezaren gauza, ta Graziaren

ondasunak. Keñu bat aski du, mundu guzia gaiñ bera erabiltzeko. Ezta gauzarik, ezta etsairik, nai duenean, bere oin-pera ez dakarrenik. Aingeru, ta gizonen kontuak artzeko dago: ta onen eskutik artu bear dute zerurako daudenak, ango atsegiñ, kontentu ta gloria. ¿Nón arkituko da, bada, onenbat esku duen Jaunaren beldur izain ez denik? ¿Nón, gure amorez urtzen, ta guri ongi-egin-nayez dagoela jakiñik, Jesus maitatu gabe, otz geldituko denik?

Bazter guziak betetzen dituen, nai duen guzia egin dezakeana ta jakintsua izanabatik Jainkoa, urrikari gaituen Biotza daduka bere-barranean. Illzera daramaten ardiak, edo illea kentzen ari zaizkan bildotsak baño geiago, bere ezpañak idiki etzituela, dio Profetak, bere nekerik gogorren, ta gure obenik andienen artean.

Zeiñ Biotz-bera duen guri adirazteagatik, gure Artzai egiten da batzuetan Jesus, ta besteetan gure Guraso, edo Aita. Non zebillen etzekien, ta agertu zayon seme maiteari, ¿badakizu zéiñ begitarte ona egiten dion aren billa zebillen aitag? Obea egiten dio Jesus-ek, bekatuaren bide galdutik etortzen zaionari. Aserretu-lekuan artzaia, atsegiñ ta gustoz beterik gelditzen da, arkitzen duenean galdu zitzaion ardia. Baña onen atsegiñ ta gustoaz eztu zer ikusi, Jesus-ek anima galdu bat, bere graziara dakarrenean, artzen duenarekiñ.

A. SEBASTIAN MENDIBURU-k.

